




bandaren berriemailea

3. zenbakia. 25 pta



POTT BANDA KO LAU EGUZKITAN

Bi hitzetan adieraziko dizuegu zertan den geure konplotta. Editoriale bat egiteko bildu gara Bilbaon POTT bandakook. Legioan bezala ez diogu elkarri eskatu curriculum vitaerik, afalondotako patxadaz hasi gara ekinean. Ukatu egin digute, oraingoz, derrigorrezko zenbaki editorialea; baina burokraziaren mirakuluak ez gaituzte alderatuko. Bihen bitartean, hau bezalako panfloen bitartez jakinen duzue gutaz. Hitz bat oraindak: editoriale bat ez da beti sortzen plangintza kulturalaren hutsuneak betetzearen. Ez gaude horri begira. Begira gaude begira goiko kamino berrira, esan nahi baita, ez gaudela inori serbitzeko geure buruak argitzeko baino. Mekaben Pott.

PARTAIDEAK:

Manu Ertzila,
Jon Juaristi,
Jimu,
Bernardo Atxaga,
Ruper Ordorika,
Joseba Sarrionaindia

MAKETAK:

Zumalabe

PHOTOAK:

Susperregi

MAKINISTA:

I. Zabala

(POTT ajentzia): Inoiz baino gehiago, esames eta berriketek alteratu egiten dute gure bizimoduaren erritmo lebea. Pott ajentzia beren hogibideaz erresponsable diren sei agentek antolatu dugu. Horregatik deitzen dugu POTTSA. Gure lana ezik, beharra atzematen dugun falazia oro desmentitzea eta egia oro baieztatzea da: Guk ere gure prentsa, prentsarik jatorrena:

- Ez da egia erratza duen oro sorgina denik.

- Ez da egia Ortzi deputatua gaeuz Dr. Jekil bihurtzen denik. Baina aunitz amek erabiltzen dute falazia hau beren haurrak izutzeko.

- Ez da sineskarria indioak humanoak direnik. Zeren eta sineskarria eta ezaguna baita Kristobal Kolonek deskubritu zituela amerikak. Beraz, indioak gizajenerokoak direla sinestarazi nahi digutenak kontaesan nabarmen batetan erortzen dira eta absurdoa predikatzen dute.

- Ez da egia Pinochetek buztana duenik. Bere espezieko kumeei ttipitan moztzen bait dizkiete.

- Ez da egia ikazkinak eguneroko dutxatzen direnik.

- Ez da oraindik konfirmatu Joxe Azurmendik, Euskal Ezker Abertzalearen Krisia delako gozari jermanikoa goizero armosatzen duenik.

- Sofia delako panamatar trabestiak Kantauri itsasertzeko hiri batetan aurkesten duen ikusgarriko sugeak ihes egin zuen, artistaren deskuido batetan, kamerinoko lababoko zulotik. Suge piton bat da, pozoinik gabekoa, baina ez gelditu frogatzera metro eta erdiko luzerakoa bait da. Ia nork kausitzen duen.

- Ez da egia ikasleek urteetan zehar ikasiriko guztia bukaeran ikastaldi intensibo baten bidez ahaztutzeko ikastetxe Nagusi bat antolatuko denik. Norbera saiatu beharko da, beraz, autodidaktikoki. Oi lur...

berriak

- Ez da korrektua J. M. Torrealdairen idazlanak antologia dada batetan sartu dituztenik, bere hitzaurrean baizik.

- Ez da egia euskal herriko henbrarik gehienak nitaz maitemindu direnik. Tamalgarria da soldaduskara halabeharrez kastoa joatea.

- Ez da konfirmatu apaizidua. Bart San Antongo elizan, apaiz parrokoa hil zen mezako ardoa edan ondoren. Polizia zailantzan dago (eta Potterook ere) norbaitek ardoa pozoindu egin ote zion ala mozkorrez defuntatu ote den klerigoa ez bait daki.

- Ez da egia Garcia Marquez hegoamerikar idazlea macondarra denik. Bere askaziaren kontu oro harrokerizkoa dela eta ez dezala nehork sinetsi agintzen eta esijitzen du Koronel Buendia.

- Ez da egia estatuko funtzionario orok, harmarik ez eta, lepoan arran bat zintzilik eraman beharko dutenik.

- Ez da egia minesteritzak ikastetxetan sexologia praktikatuko astero hamar ordu asiganatu dituenik.

- Deustoko unibertsitas jesuitikoan ere ez, noski. Gainera, frogatu egin da jesuiten jerarkian, dekanotarik pornografikoenaren irakurketarik erotikoenaren Kerexetaren Bibliaren itzulpena dela. Orgasmo goren eta luze batetara heltzen da irakurtzen duen baikoitzean.

- ORTko ordezkari batek komunikatu digunez, ez da egia Alderdiaren Kongresoaren bukaeran Gora Surrealismoa oihukatu zenik. Hori oihukatu zuena oligarka bihozgabe infiltratu bat zen eta mihia lija latzez forratzeraren kondanatuko dute, anitz tortmentotara ez ezik.

- Euskaldun nekazari talde batek, Borges-en El Congreso ipuina irakurrita agiri bat publikatu du, ohar bi eginez: a) Bazkalekuaren teoriaren arauera Fernin Eguren ez da euskalduna eta, gainera, b) Gauzak bere tokian ipintzeko euskaldunek bere historian zehar behiak gobernatu egin badituzte, beraz ez du inoiz liburuak esprimitu besterik egin. (1)

- Ez da egia idazle izateko arras neurotiko izan behar denik, edozein ezneurotiko ere hasi daiten idazten, badu gero ere neurotizatzeko astia.

- Ez da egia Asterix-en komikia txobinista denik, ez da egia Astorix-ek belarri handiak dituenik, ez da egia Obelix Baionako jendarme bat zenik.

- Ez da egia Martin Villa hiltzaile bat denik. Antifrankista eta demokrata purrukatu bat zen eta Txiki, Otaegi, Garcia, Sanchez eta Baena-rekin batera hil zuten 75ko irailaren 27an. Goian Bego.

- Ez da konfirmatu Francisco Franco erresuzitatu denik. Erreportero batek argazki batzuk atera zitziola deklaratu du, baina frogak falta zaizkio, kaudiloak potroetan eman omen zion ostikadak aparato oro abandonatu eta ihes egitea deliberatzera buztatu bait zuen.

- Ez da konfirmatu Peru Abarka zena (arotza, hargina, itzaina, atxurlaria eta basoazterlaria) talde rock gogor batetakoa zenik. Detaile honek garrantzi handia du rockeroen historian eta ikertzen ari gara Mogelen liburuan.

- Egia da tinta agortu zaigula. Beste boligrafo bat erostera goaz, gero arte.

(1) Pott bandako apatridak eta banda berbereko liberalak halere bere diskonformitatea adierazi nahi dute berri honen aurrean: Biba Borjes, biba.

Firma: POTT.SA.

poema liburu batetarako hitzaurregai bat

Boutade batzuk gora edo behera, bere gauzak kanporatzen argitaratzen dituanaren pentsamenduak ez dira kontrapasa dantzatzen hasteko modukoak izaten normalki, ene kasoan bederen ez dira behintzat horrelakoak izaten, ez dira. Virginia Wolf, bere liburuak ateratzen zituen bakoitzean, lur jota geratzen omen zen. Kasu arrunta, berea ere.

Hitzaurrea egitea ere, egoera urduritsu horren adierazgarri dateke. Nolabait, despedida bat zaigu. Orain arte gure baitan ur berotan bezala egon den zerbait bota aurretik, kale hotzetara jaurtiki aurretik geure buruari eskaintzen diogun azken une laburra. Trena abiatu baino lehen "oraindik bi minutu dauzkagu" delakoaren antzeko zerbait.

Nolabait ere, ba dirudi literaturaren zereginak (gizartean behar lukeen postua, noski) faltsuztatuak daudela. Egilearen eta irakurlearen arteko rendez-vous bat omen da liburu bat argitaratzea, baina ez da hori inola ere, ez da zeren eta norbaitek faltsiki egiten baitu zita horretan. Agina biak egiten dute poto, egileak eta irakurleak. Jakina, hitz asko xahutu eta alferrikaldu da egindako literaturaren kanporatzeaz, eta egite horren gorabeherak aztertuz. Hemen ere xahutuko dira, eta zera esanez, literaturgintza epaile-epaitu bikotearen jokuan galtzen dela esanez. Liburu hau botatzerakoan ere ez nau uzten sentimendu honek, ez, ez ditut arkituko irakurleak epaileak baizik, eta eskerrik asko. Zenbait zirkostantzi berezitan, gure herrionek zerbait osatu, moderno eta beste edozein herriren mailako izateko nahiak sortzen ari denetan esate baterako, areagotu egiten da literaturgintzaren egoera tamalgarri hori, herri edo kultura edo dena dela bat eraikitzeko puntuan ierarkiak asmatzea baita, antza, biderik lasterrena. Ierarkia, konpetibitatea. Ez da beste filosotia hedatuago eta indartsuagorik zerupean, eredu eskurakoiena da hain zuzen, betikoa, ia eternala makina baten ustez, eta mediokreak, pattalak garenez gero ezin da asmatu beste zubirik parabisurantz. Irakurle ideiala ez litzateke konparaketetan ibiliko eta gozatzea litzateke bere desio bakarra. Haur batek ez du bere jostailua gonpara edo klasifikatzen, kondanatzen. Jostalaria eta epailaria ez dira etxe berberan bizi.

Irakurlea epaile denean, magistraduei dagokien tokia betetzen du, han goian, eta ez da jabetzen —nola bada— norberaren erlatibotasunaz, bere ideien unibertsaltasun ezaz, eta bere pentsakera eta ideologia aurrez erabakiak kontrajartzen dizkio bestearen lan horri. Justiziarik ez da inon, dagoena arbitrarioa da. Literaturaren plazan, halaber. Nabokov, Borges, hara hor bi arbitrario sinpatiko. Baina ba dira ez direnak ere, sinpatikoak ez direnak esan nahi da. Epaile-epaitu bikotea, honi dagokion konpetibitatea eta ierarkia literaturgintzaren ardatz ba dira, jakina, gizartekera berezi batean kokatzen dugula geure aktibitate hau. Espektakuluaren gizartean. Honen barnean, berorren filosofiaz ornitua. Harreman faltsuztatu bat lehen esan bezala, non azken finean, edonon eta edonola, merkantzia azalduko den. Merkantzia huts bat liburu. Eta egileok ere gogoz sartzen gara zirku horretan. Sariketa literarioak, proliferotasun bitxi bat, photoak. Zein absurdoa.

Gure kasoa. Begirada bat bota diezaiogun gure panoramari. Ezin esan gure artean montaia komertzial handirik ba denik, apenas ezer. Berrehun liburu saltzea heroitasuna den lur batean ezin gerta horrelakorik, ez bait dabil dirurik tartean. Baina herri humilak omen direnetan ere koskortzen dira filosofia berberaz elikatzen diren egoerak, joerak eta ekintzak. Geure kritikaren azterketa nahiko adierazgarri gerta dakiguke. Hemen bada, bai, kritika bat edo izen hori hartzen duen zerbait. Den kritikarik kaltegarriena dugu, jaunak.

Euskal Herrian berehala jakiten da idazle bakoitzaren euskararen nolakotasuna; amets txar batetan zera ikusten duzu, tipo bat, lapitza eta papera eskutan, zenbat aditz sintaktiko erabiltzen dituzun kontatzen. Baina ez zara horretan bakarrik epaitua izaten —aztertua fosile bat bazina bezala— zeren ahalegin asko galtzen baita nori zeri kopiatzen diozun jakiten, edo zein iturritatik edaten duzun argitzen. Zein tokitan koka ahal zaituzten jakiteko. Gure kasoa aipatu berri dut, inork besterik ez dion bitartean Euskal Herrian gaudelako. Zer esanik ez, Madriilen ere ortotsik dabilta zakurrak. Madriilen, Parisen.

Errepika dezadan: hemen ez da montaia handirik, bankuren batek egin duena salbu. Baina hemen Euskadi Ofiziala sarritan deitu izan dudana errealitate boteretsu bihurtzen ari da azken aldi honetan. Euskadi Ofiziala, España ttiki bat. Euskal polizia, euskal katedratikoak, euskal eliza eta euskal tituloak. Euskadi ofizialak, sustantiboa dagoen bezala utziz, adjetiboaz kezkatzen da bakar bakarrik. Horregatik behar dira, euskal star literatoak. Batzuk horretara prestatuko dira, noski. Borrokatuko gara posturen bat hartzen. Aipaturiko kritikaomen horrek horretara garamatza. Gure kritika, kritika arbitrario bat da, mafia (eta ez magia) arazo bat. Balore literarioak bost axola, ideologia edo arrazoi taktikoak edo elkarrekin egindako bazkariko autobonboak. Zenbat gauza ez diren esaten herri honetan...

Arbitrarietate hau erakustearren, Amaia Lasaren kasoa aipatuko dut: ezin ikusi inon bere azken liburuaren aipamenik. Zer esan nahi ote du honek?... bere liburuak ez zuela informazio bat merezi edo inoren ardurarik?, ezpairik gabe ez. Gertaera honek bi gauza adierazten du, bata, hemengo kritikoei zipitzik ere ez zaiela inporta literatura (zeren, bueno ez, ez noa esatera ezer, literaturzaleek, inon badira behintzat, konprenituko naute) eta bestea, poeta hau ez dagoela mass mediataraino heltzen den mafia batetan. Beste adibide bat, hildo beretik: Lasaren kasu hau salatzen zuen artikulu bat idatzi zuen norbaitek egunkarian (eta gauza xeblebre bat eskatzen zuen beste zentzuzko batzuen artean, ia ez al zuen merezi photo bat liburu handi batean, joder, ez al daki photoak txoro kontuak direla edo zer) baina artikulu horretan ez zen aipatzen Manu Ertzilaren kasoa, berau kasu paraleloa delarik. Zergatik... artikulu horretan ere literatura ez zelako arduren putzu. Ez zen literaturzale baten kexa, ideologi kide edo zer dakit nik batena baizik. Eta beste arlotan?... zineman?... Zabalaren "Axut" filma (izen hau merezi duen bakarrenetakoa edo bakarra) erretenera bota dute, duzue. Bilbaon ez da oraindik ikusi ahal izan. Mediokreren batek bideratzen du gure patua.



Kritikaren eginbehar arbitrarioak gaiztotu egiten du beraz literatur bidea. Ez naiz objetibitatea eskatzen ari —ez naiz ezer eskatzen ari, bestalde— gauza errazago bat baino: finezia apur bat.

Berrikusi dezagun orain, hasieran aipaturiko giro hori. Ez dela irakurlerik esan dut. Epaile joera dagoela. Goazen aurrera.

Begien bistan dago gizonak sentiduen bitartez hartzen duena bere adimenduaren bitartez konprenitzen duela, eta jakiten zer den sentiduek eskainitakoa. Halaber dago begien bistan, eguzkia bezain argi, operazio honen erlatibotasuna; ez daude munduan bi pertsona "baso" hitzari esanahi berbera ematen diotenak (Opus edo alderdi politiko batekoak ez badira bi pertsona horik, jakina). Eta garbi dago baitaere pertsona horrek aurrean duenari baloraketa bat ematen diola. Beraz, pentsa daiteke, epaiketa gauza oso normala da. Gustatzen zait edo ez zait gustatzen. Tipo hau kankailu bat da edo ez da. Txarra da, akonjonantea da. Bai, epaiketa gauza normala izan behar du, eta horregatik da, behar bada, hain gauza gogorra liburu bat kaleratzea, edo filma bat aurkeztea edo dena dela. Zeren epaiketa hau naturalena izanik ere, arbitrarioa baita halabeharrez. Historiarik ez duen, eta denbora luzez egindakoari egiten zaionean bereziki. Adibidez, bi urtetan nekez egin den poetika —bi urteko barne denbora, adina duen poetika— gau batetan likidatzen baitu irakurleak, ez perspektiba eta ez kristorik gabe. Bi urte, gau bat. Ba da hor alderik. Bestalde, gure buruak ez dira egoten alienaziotik kanpo edo urrun, eta errealitate gauzatzatu, kosifikatua ukaten dugu banderaz. Arbitrarietateari buruz ikus egunkariak, eta artikuluak, eneak barne. Baina epaiketa hori berehala bihur daiteke desnatura ere. Eta hauk, epaile desnaturaak, aipatu nituen nik. Horregatik esan dut: epaitu-epaile bikotea, konpetibitatea, ierarkia, espektakulua. Epailea magistradu batekin gonbaratu dut, hots, boterea duen zerbaitekin. Boterea, bai, hau da kaxoa. Ez ahalmena, kontuz!. Boterea, erdarazko "dominio" hitza bezala erabiltzen dut, kontzeptu negatibo bat, diktaduraren boterea negatiboa den bezalaxe. Ahalmena, kreatibitatearen auspoa dateke. Hortik zehar, Trias.engan aurki ditzakezue kontzeptu horik.

Ipin dezagun beste adibide bat: orain dela hilabete batzuk arte, hurrei zein zen bere ipuinik maitatuena galdetzen ba zitzaien, "Heidi" erantzuten zuten. Gauza jakina da, edozeinek onartuko dit hau. Epaiketa hori, ordea, desnaturala da. Ez da, zehazki mintzatuz, haurren epaiketa bat, boterearena —telebisioko zuzendariarena, kasu honetan— baino. Botereak hautatzen du ipui hori, eta promozionatzen bere tresnak —eta ze tresnak!— direla medio. Gaur umeak ez dira zuzenki umeak —gizon ttipi batzuk baizik— baina kontenplatu egiten du zer den umearen bizitza (Heidi da "benetako" umea). Botereak esaten du zer den ume bat. Zerk influentziatzen du gehio ume bat filma horik baino?, bere esperientzi zuzenak?... ikusi egin behar. Batez ere bere esperientzi zuzena, bere benetako errealitatea irudi horik berak direnean (Teleikusle dira umeak ere). Eta adinekook, zer egiten dugu lanean bizitza pusketa utzi eta gero?...kontenplatu bizitza omen dena. This is Amerrikka, Los cuarenta principales, Autobiografia de Fulano, Como perdi aquello.


Arestian aipaturiko adibidea, Heidiz txoratua dagoen haurrarena, tarte edo urruntasunaz ikus dezakegun fenomeno da. Baina ez da maila horretan bakarrik ematen. Espektakuloa da nagusi. Literatura moeta asko hedatu bada, arrazoi extraliterario —eta gainera, boterea dagoela tartetik jakina— bategatik izan da. Lehen esaten zen: Opusek triunfatu badu, frankismoaren gurdira igon zelako izan da. Baina ba dira beste gurdi frango, ez denak frankismoarena bezain boteretsuak, baina gurdi azken finean. Literatu pila bat, txar askoak, erori zaizkigu —izurrite baten moduan— alderdi politiko konkretu bati apartenitzen zutelako, edo ziotelako. Gurdiak.

Euskal Herrian, euskaraz egiten dugunok lau katu gara. Ba da azeriren bat, baina tira, lau katu. Lau katu horien arteko errealitate kulturala arras sinplea izan behar du derrigorrez. Baina ez da horregatik positiboa, horregatik bakarrik ez behintzat. Elemendu positibo askoz jantzia, baina ez horietaz bakarrik.

Elementu horien artean, epaitu-epaile eta beste elementuak. Negatiboak. Hemen ere, epaiketa eta literatura bera bitartekotua, mediatizaturia, dago. Botereak behartzen du egile honen edo haren zabalkuntza. Ez bakarrik batzuk dirudunak eta besteak gizarajo batzuk direlako. Kritika arbitrarioa delako ere bai. Botereak, hemen, beste izen bat du, Euskadi Ofiziala deitzen da. Mafiak, baloraketa estupidoak, propaganda eta beste hortikan sortzen dira. Arrazoi desliterarioak nagusi. Horregatik esaten nuen ez dagoela irakurlerik, ez amesturiko irakurleriik bederen.

Euskadi Ofiziala. Ondo. Baina nola definitzen duzu zuk Euskadi hori, ez da aski insultatzea, gauzak neurtu egin behar dira, hori esaten dit etxeko batek. Saia gaitzen horretan ere, atxiki diezaigun horri ere, Panaderitoren moduan.

Politikoki, kontzeptu horren barnean sozialdemokratak sartuko lirateke, peto peto. Horiek ez dute amesten gizarte euskaldun klase gabea, eta aurrerakoia bizitzaren kontzepzioan. Bere alternatiba bakarra zeretan labur genezake: Madrilen bezala Cortes batzuk —lehendik ere ba zeuden Bilbao aldean, baina tira —baina gureak. Gurea, hitz majiko bat. Horregatik esaten nuen: españa ttiki bat. Ez noa ni hemen sozialdemokrazien xehetasun ororen berri ematera, eta bat aipatuko dut: populismoa, interklasismoa. Denok anaiak gara. Batasuna. Halere, anai kontu hau bitxia da beti, Bibliak ere esaten du, Cain mato a Abel que era su hermano. Tendentzi arraro bat dagoke; Afrikan ere —independentzia ostean— anai pobre guztiak nagusiak likidatzen ditu. Bidaia kide den anai burjesak aurrera oraina lapurtzen dio besteari, eta gero fusilatu egiten du.



GAUR
MINTZATUKO NAIZ IPUS-EN GURDIEZ



Sozialdemokrazia bat, gurearra eta aber, hauzoko bat baino hobea dela pentsatuko du askok. Baina beste askorentzat, hori ez da enikarra on bat, ez bata eta ez bestea sino todo lo contrario. Aukera hori zerako hura bezalakoa da, zer duzu nahiago gosez ala egarriz hiltzea?... motel, ez duk azukre koskor ederra hik eskaintzen diaken proportzioa!...

Politiken sozialdemokrata ez diren asko ere, fronte planteamenduz ornitzen dute bere plangintza kulturala. Populistak haren ere. Euskara kiarian esateko: ande o no ande, caballo grande. Denok anaiak gara, euskaraz idazkitzen den pro ona da, ondo dago. Aski da. Kultura nazionala egin, jaso edo indartu egin behar da. Baina jasotzeko moduan dagoke bitxitasuna, eta desberdintasuna. Esate baterako, ofizialak ez dute kaosik nahi: literaturan, kasu, plangintza bat eskatzen dute. Zer behar da?...kuzina liburu bat, bada hasi beharko da hori egiten ere.



Funtsean, ez da errespetatzen indibidualitateak bere kabuz aporta dezakeena, hori nahasmendu bat litzateke. Populista batentzat, alde aurretik emandako kultura definizio baten barnean sartu behar da produkzio intelektual guztia. Esate baterako: euskara indartu eta zabaltu egin behar da. Konforme. Baina: beste guztia horren serbitsupean jarri behar da, literatura, zinea edo pedagogia edo kaka zaharra. Bada ez jauna, ez gaude konforme. Bakoitzari berea: literaturan, lehenengo gauza literatura egitea da (jauna jauna, zenbat aldiz). Eta gero, ba dira, besteak. Kulturaz esaten da: zera da, komunitate batek errealitateari erantzuteko, berorri transformatzeko egin den hura. Laburtuz, gizonaren lan oro kultura da. Baina guk nahiago dugu beste hau, ez baitago definizio neutralik: egoera ekonomiko batetan, komunitate batek eguneroko bizitza antolatzeke egiten duen ahalegina. Eguneroko bizitza, oraingoa.


Euskaldunen kultura zer den, eta zer izanen den, historiak esanen du. Itsasoan goldez hildoak egiten saiatzea, alferrikako lana da. Eta kultura bat bide bat egin dezan, bide konkretu batetik joan dadin bermatzea, halaber da alferrikako gauza. Generalitatetan egon gintezke ados, baina hortik aurrera jai.

Zenbaitek ba omen daki zer egin behar den, zein programaketa kultural eraman. Guri gauza apalagoak jakitea ere asko kostatzen zaigu. Pena bat.

Baina horrenbeste dakiten horik "bakoitzak bere apurra, guztiok ekin diezaiogun iepa, Euskadi da inportanteena etab" esaten dutenean —hots fronte planteamendu borobila egiten dutenean— zerbait oker susmatzen dugu. Berak nahi duten kultura, kultura Bat da, kultura moeta bat. Esate baterako, populista denez gero, anbiguitate bat izanen du. Anbiguitate hori, halere, itxurakoa da ezinbestean, azpitik talde indartsuenaren haizea dabil auspotzen —dirudunena etab— planteamendu hori, bai, hor dator gure anai burjesa. Sozialdemokratik betetako herri batetan ezin gerta bestelakorik. Ikusiko dugu noren eskutan geratzen diren ikastola haik, (exenplu bat jartzearen). Poema bat kanporatzean beraz, arbitrarietate naturalaren gainetik, ofiziala ere arkitzen du poetak. Ez dira poeta baten problema bakarrak. Ba du beste problema asko, baina oraingoz ixiltzea hobe, ezpaita artikulu bat amaitu behar publikoari insultatuz. Eta bukatzer a noa hurrengo puntuan, gehio esango dugu hurrengo bertuan.



Pott bandako apatrida




“Toki guztietan, izakien eta gauzen zurrunbiloak bakarrik”
(Céline)

Txerri tarteko saltsa
jakiña,
lokatza, hatsa, kiratsa
eta erdi erdian
nire hutsa,
putza,
nire hutsaren barnean
hotza,
hotz eta ilun
iluntasunetik zintzilika
soka,
sokatik zintzilika
ni,
baina ezin ihes egin



txerritegi honetan, zikinkeria tartean, kaka mordoak. Ura kolore goibelez, txokolate urtsua dirudi. Belaunetaraino igo zaigu. Orain oinez hasiko naiz, plasta-plasta berriz ere, eta zuri botako dizut piska bat, mokordotxo bat bakarrik, aurpegira, elurrezko bolatxoa belitz bezala, ez beldur izan gizon, beste bat botako dizut berriro beldurra gal dezazun, badakizu, ohiturak gauza asko lasaitzen du, plof, koño, berriz ere asmatu dut, beraz galdu duzu, kendu hadi hortik berehalaxe txoko horretan ni eseri behar naiz eta. Orain jabe. Bai, badakit eseriz gero aho ondoraino igoko zaidala, eta zer, ohitura handia dut, ez zara gogoratzen nola behin batean ankaz gora egon behar izan nuen eta buruz behera egon nintzen ez dakit nik zenbat ordu, egun, urte, segundu, bai, hamar segundu egon naiteke hegaz



itsaso honen gainean Fenix hura bezala edo hobe, askatasunaren usoa imitatuz, gero erori behar noski, nola iraun, altxako naiz, beharko, baina ni aurrera beti ikusten baititut errotak jira-biraka, ni naiz erraldoi handiena, trebeena, hoberena, baina txikiena zure ondoan, ez naiz ezer zutzaz konparaturik, zu nire erregina, zutzaz ari naiz beti, oraintxe bertan koroatxo bat eskainiko dizut, ia nolakoa prestatzen dudan, hemendik zati bat eta hortik beste pixka bat, holaxe dotore dotore, porlana bezala moldatzen da, jakin beharko duzu amodioak erabiltzen duen kolorezko zintekin horniturik dagoela, nere ilusio guztiak hor doaz, eta zuretzat da, zuretzat bakarrik izango da, zu nire mundu honetako motore bakarra, zuk bizierazten nauzu, zuk alde eginez gero zer ote? Bueno ixilik, hitzak baino hobe ametsak. Bai, kaka zaharra!. Ni naiz hemengo jabe. Zuk ezagutzen duzu ezta? Andre zoragarri eta xarmanta, banetan, ba al dakizu nola konkistatu nuen? zer, esan dizudala hogeitaz bider gutxienez? bueno ba ixil hadi eta entzun iezadazu holako bentura miresgarriak ez dira egunerokoak eta. Pentsa ezazu momentu batez, gizon luze, sendo, eder bat, ni noski, esplorador traje kréma batez, guztiz beltzaren, begirada gogorra, ezin jasan daitekeen begirada, harro harro sartzen naiz hotel hartan, “L’Etoile du Sud”, atea indartsu bultzatuz, kafea jendez beterik, giro zaratsua, ke handia, aldamenen dauden pertsonak ezin ikusirik barraraino noa, kamareroak beltzak izerdi darielako traje zuritan sartuta, pianista burusoilak bere hortz handiak erakusten ditu, “not here, not, anywhere”, jotzen ari den bitartean, hiru bentiladore handi sabaitik zintzilika astiro astiro bueltakada ari dira lurrean da-

Jimu

goen harea pila ez dezan, bai ondo esan dizut harea, desertuko harea legorra, zeren jakin beharko duzu ni Fort Lamy-n nengoela, armak trafikatzeko hasi eta segidan hango jabe handienetarikoa bat izan nintzen politikan sarturik, hainbat jopu ere banu en, gaur bat eta bihar beste zapal nezakeen nahi ez gero, halaxe, ikusten al duzu?, zangoa altxa eta holaxe, eh, bai? bueno aurrera orduan, whisky botila bat hartuz huts aurkitu dudana mahai batera noa beste mahai batetik enbajadoreak konplizitatez beterik dagoen irripa bat bidaltzen didan bitartean. Eseritzen ari naizenean hantxe ikusten dut lehenengo aldiz, fita luze batez tabako usaintsua ari da erretzen kofaka kopa baten aurrean, jaka zuria, gona zuri luze bat eta bota beltzak baina haren begirada nirea baino askoz gogorragoa, ene begi tarteko puntu horretara ari da begiratzen fermuki, ni ere berdin, altxatzen naiz, bere ondoraino heldu arte erdi barrez noa,

- esan ohi da begi beltzek begi beltzei daitzen dietela nahiz eta topa egiteko momentu hori heltzeko mundu erdian zehar ibili behar.

- klase askotako begi beltzak badira eta faltsuak ez dira zaileenak topatzen.

- zureak ez dira halakoak izanen, nireak haien atzetik joan direnez gero.

- ni, oster, ez naiz higitu hemendik.

ixiltasuna. Ixiltasunak egiten duen hutsuneak ideia guztiak irensten ditu. Baita gauza guztiak ere, mahai hau, kafea, hotela, hiria, desertu hau, eta berriro hutsune handi bat. Eta ixiltasuna. Eskua hartzen diot, irribarre batez lagundurik.

- Ba al dakizu begiek duten komunikazio indarrak itsaso mugagabe bat meda dezaketela amets eta ilusio guztiak bizi daitezen betiko?

- Beharbada.

- Ba itsaso horren erdian gaude. Zurrunkiloak herrestan eramango gaituzte nonbaitera. Berdin zait edozein tokitara heltzera.


- Nahiago dut hegoaldera. Han amets eta errealtateak askoz azkarrago bat bihurtzen direlako.

Ze berriz ere hasi al zara gezurra dela edo ez dakit zer dela esaten? Ixil zaitez, bestela kriston ostikada hartuko duzu. Esaten dizudan guztia egia da. Hau da zuri gertatzen zaizuna, potroetaraino sarturik dagoen inbidia besterik ez duzula. Hara, begira, altxatu da neska xarmant hori eta bagoaz biok, ttipi ttpa holaxe.

Nire aurrean dagoen gizon hori bai dela gizon arraroa! Bakarrik eta hizketan. Zerbait ari da esplikatzeko baina nori?. Ontzi barruan, kaxa baten barruan, soslai ikusten dut, ezkerrean begiratu, likido ilun, txokolatezko bezalako bat belaunetaraino heltzen zaio, anoa astintzen du hizketan ari balitz bezala, besoak erotu den errota bat dirudite, eta ibili nahi du, hargatik oinak mugitzen ditu baina, egitan esaten dizut, geldirik dago. Ez da mugitzen, benetan, zeren delako ontzi horrek bi metro bakarrik baititu luzera eta beste bi zabalean eta kaxa horren sabaia buru parean datorkiolako.

Hala dela ematen du. Hau ere itxura berdineko ontzi baten barruan. Lehengoari so eginez, ia geldirik eta bere buruari hitz egiten; bere eskuinean dagoen beste gizon batek etengabeki aztertzen du. Bere kaiolatik begiratzen ari zaio. Orain paper bat irakurtzen ari da. Oinak hezeak, bustirik sentitzen hasten denean usain kiratsua bere kaiola inbaditzen hasten da.

Jimu



Bizpahiru bider eseri naiz rollo hau idatzi nahiz bainan nire burua arras nekatuta dago aspaldi honetan. Honez gero jubilazioa lortu baduzu ez didazu ulertuko, seguru. Gainera honelako kondizioetan idaztea zein zaila den ere ez duzu asmatuko. Gerraondoko urteetan biziko bagina ez genuke honelako problemarik. Problemak —ai ama!— eguneroko hiba zikinaren ertzetik lanera alperrik joan behar denean astun bihurtzen dira.

Literatura zaleari behintzat hala gertatzen omen zitzaion: euskal kulturen zegoen hutsune hura; "honelako gauzak ere ondo zeudek euskaraz", eta abarrekoak.....

Izugarria bada edozein tokitan botereak dena irensteko duen ahalmena are izugarriago herri puta honetan. Hemengo situazio larriaren irtenbidea norbaitek euskal kultura ofizial baten tinkotzean ikusten du. Beste zenbait herritan ematen denaren parekoa. Euskal Unibertsitatea eraiki baino lehen katedra guztiak beterik ditugu; "ora et labora" nagusitzen da oraindik publikazio ofizialetan eta nahikoa ez balitza ba dago auto-bonboaren saiaketa honetan bide ofizialetatik kanpo abiatzen direnen lanak estalki gisa erabiltzeko joera nabari bat.

Irtenbidea ez dago —guk uste— beste hizkuntzetako kultura inguruetan ematen den kontrakulturaren pareko bat egitean. Edozein girotan hone-



lako saioak berdinak izaten badira hemen askoz ere errezago. Kontrakulturarik ez dagoke kulturarik gabe. Kontrakulturarik ez dago hemen.

Hargatik Pott editorialekoek ez diote elkarri baizik pott ematen, adiskide lan bat egin nahiz, inongo hutsunerik betetzeko esperantzarik ez dutela eta lurralde zikin honetan pott eginda dabilen literatura zalearekin —eta bestearekin— bat egiteko prest to te pot, noski.

POTT MAN

gizamultzo honen deuseztatzeraz, zuzen zuzenean, dihoan gorpuzkin hilik ez dut asmatuko. bidenabarrezko zoriari lagatzen diot zereginori. laketa zait zotzen jaurtzea.

sobera literatura produzitua, zerraldoiaren argazki beneragarriak, gurari guztien moztea.

parker luma fin eta dotoreak
eros ezaiozu heurretari bat zure semeari
eskriba biguintasuna senti dedin
zure fameliartearen ohoretuko du
idazle hospetsu baten izenak
betikotasuna hara! zure eskuetan

gorago aipaturikoaren kontraesana. umore iluna irristatzen zait noizbehinka. diodana esatean alferra bait da, esana dago, t. abar. idaztearen premia berrezkoa ote ala, aldiz, mamutzarrek sartua. zeren... paperezko autokartzelatzeko hontan santutasuna hurbil dago.

bizitza bat eta azken mugan heriotzaren lilura. kanpotik barrena eta bateratsu barrenetik kanpora

izaeraren larritasuna. heriotzarik ez balitza ere larritasuna betiro argain.

tankera edo estiloa (lekua deitzen diot neuk) aurkitu-sortu beharra.

baina

zientifikoek askatasun gura ikertzen ari dira eta laister batetan azalduko digute non-nola zergatik sortzen den gaitz hori.

ezagutuz gero ez da zaila izan beren sendatzea.

berdin maitasunaz eta poesiaz.

lanak aurrerakada sana eman dute egunokaz.

eta

seme-alaben nehurri, edertasun, begikolore eta zehaztasun oro aukera ditzakezu aurretik.

"ez, ezelan ere ez! ni gizarteari eta estatuari zor banatzaio berari utziko diot aukera, bera bait da jakintsuahalguztiduna. bakoitzari doidoi merezi duguna emanen digu."

O.

MY DARLING; ENE UZTEZ,
QUE YO SOIS UN PETIT
ELEPHANT...

diglosak

donemilia kukulakoan aurkituta-
ko glosen arauera pastitxe/colla-
ge hau osatu dut
euskal literaturaren milenarioia
hospatzeko
eta ziklo kosmiko honi bukaera
emateko esperantza gaiztoarekin

bilbao 7777

eltxoek populatzen duten fadura
honetan euskara dugu ur ustel
bat

lur irmotatik urrun, haren hon-
doko basa mugikorrean harrapa-
turik gaudenoi edonundikan
datorkigu ahora zapore gezamin
bat

murgiltzen garen zingira ez da
adamek arrastaka abandonatu
zuen osin primigenioa

lupatza honetara isuri dira hamai-
ka mendeko detritoak

beltz zimarroï eta indio arauka-
noen odol kristautugabea

arenaleko ezkiaren orbelak

hainbat maizter karlistaren gorpu
eta giri lepamoztu

mineraleko ikuzlekuari zerion
salda marroia

miravillaseko lumpenkakopirri
kolerikoa

zirrosak batek hil zuen poztaren
bilica

urina, petrolina eta garratz sulfu-
riko ania giltzaro garatek
benedikatua

a. nunca fermín eguren me pudo
/ver

ejercía diversas soberbias
la de ser oriental
la de ser criollo
la de atraer a todas las mujeres
la de haber elegido un sastre
/costoso

y nunca sabré por qué
la de su esilíon vana
gente que al n argen de la historia
no ha hecho otra cosa que
existir vacas

J. I. Borge

Handwritten signature

zalantzatik kanpo dago herri honetan perito industrialak eta abokatuekonomistak unaiak baino askozaz ugariagoak izaten direla. batek igar ditzake nortzu izan ziren sanbenito hau jantzi zigutenak, baina ez genioke j.l. borgesin hain zuzen euskaldunak vaqueiros de alzada edo pasiegoekin nahastearen hobena leporatu behar. zeren borgesitsuak manaia-tzen duen topiko hau eidos/imago edo irudi plastikoko bat baita. pinturan sortu zen euskal arkadia. halere, arteta eta bazter ditzakegu: haien mihiseetan xapelek eta ximiniek aurrerapenerako aliantza berria firmatzen dute, mailuak eta igitaia liho gorrian bezala. ez. oraindino sostengatzen eta sosegatzen eikonoi finkoak lehen eta ifarraldetik heldu zitzaizkigun eta: ludovico le peintre des basques, zeinen koadro ttipiak gogoratzen zaizkit familia egoitza ilunduetatik. hemen daude baserritarren aurpegi bizargabeak, ilada luzeak xanbergo azpitik jaitziz, kapusai eta mantarresak, buztinpiak, the claypipes of w.hogarth's yeomen, teniers gaztearen tabernazaleen deliziak. naturalismoaz ase sinbolismoruntz makurtzen den frantzian zenbait grafomano-udatiar-errentista-fonctionaire-douaner-ak difuminatzen zihoan nekazal estereotipo honetaz literatur gai bat eginen du. gero agertuko zen chiquito de abando, ez pelotaria, bere lorategian wigam bat eraiki zuena baizik.

bilbao ez da partaide hemen. ez dira mea zurrumurruak ailegatzen. sabin arana goiri sioux bat zen jehovamanitou bati begira.

eta sitting bull hark euzkadi baratz bat zela eta euzkerea bere lorea esan zuenetik. lastertu egin gara geratu gabe papeleretako pinudi eta siderurgikien artetik, séptimo de caballería mamutzar batek jazarrik.

oharra: aquejado por un singular fenómeno que definiría como dilinguasía o biglosismo desde mi más remota infancia, carezco de la habilidad o la paciencia necesarias para mantener estable mi status etnolingüístico. it may be an exotic illness, después de todo.

b. qué quieres!
los vascos son tan tradicionalistas
que a veces saben lo que han
/hecho sus padres
pero nunca lo que hicieron sus
/abuelos

p. baroja



"orhoit gutaz". unamunok bariatun behin ikusi
zuen inskripzioa nolako eskamen alferra! ur ontzie-
tan elkarrik ito eragiten duten eulien eraz portatu
egin gara. stalinek, bere ohizko ingenioarekin,
egungo gizonak erraldoi baten sorbaldetan nano
bat bezalakoak garela esan baldin ba zuen, errauts
piramideetako gailurretan gaudela baieztatzeko
euskaldunok izenak, belaunaldi zaharrak, elikatu
zituzten mitoak, ezpata odoltsu eta laia herdoil-
tsuak, peru abarkaren goldea eta juana buytronen
kastitate gerrikoa hondoratu dira gure kontzien-
tziaren urtegiaren.

herri demente memorigabeko bat egiaren or-
dezko fikzioa onartzeko prest beti aurkituko dugu.
herri berbera fikzio bat dela, edo, hobe esaterako,
fikzio literario bat dela esan zaigu. are hobeago:
esan zigun gaurko senatore frustratu batek, ez da
gauza berririk tradizio eskolastikoan. calderonek
mundua teatro batekin gonbaratu zuen, eta gehitu
ere bizia amets bat zela.

baina herri memoria ahultzen den neurrian,
gizentzen da leviathan.

interludio literario cinematográfico
rollerball
james caan izerditsu bat iragana artxibatzen
duen konputadoreari
hurbiltzen zaio mientras un contrariado
funcionario lamenta haber perdido el siglo trece
bradbury-truffaut

farenheit 451 eta liburuak erretzen dituzten
bonbero beltzez jantziak
orwell

1984 behin eta berriro berridazten den
historia anaia haundiaren
kapritxoaz eta gauetik goizera aldatzen den
arerio sekularra
neolingua
ignacio siloneren nekazarien gortasuna

denok batera. ahaide nagusia eta petxaria mauruen
kontra, protestanteen aurka sermolaria eta baserri-
tar noblea, jauntxua eta maizterra liberaleen
kontra, biba don carlos eta doña margarita, franco-
ren etsaiak estraperlista eta pecia, jeltkidea eta arrai-
na real betis balompié eta mio cid garaitzeko elkar-
turik.

baina

HEMEN JAUNAK EZ DUGU
/ATZERA BEGIRATZEN
JENDEAK EGUNERO LANA
/EGITEN DU

los del cielito lindo lankide
aurrezkiaren iragarkiak ohora-
tzen dituen bizardun batek.

**EUSKADIKO
PUTZA**

EUSKAL UNIBERTSITATERAKO

Bost jockey bost
BEHAR DIRA

ATEZAINTZARAKO

(beste postuak banatuta daude jadanik)

1. Jockey jaunak Euskaltzaindiak ematen duen DDT titulodunak izan beharko dute, notadunak hain zuzen. Eta gainera jabego hauetaz ornituak azaldu beharko dute: pegatina kolekzio osoaz (Euskadi 36-77), puntos Elenaz, tigre itxurako gantzontziloaz (1), eta abar.
2. Estimatusa izanen da kandidatoen gaztetasuna, begirada garbia eta birjinitatea.
3. Zaldi baten jabea bada kandidatoa, are eta hobeago eta zaldi hori Oinati edo Bergarakoa bada, mila bider hobeago oraindik, bi herri horiek duten unibertsital tradizioagatik.
4. Jockey famelian abade edo fraiderik ba denentz, adierazi baitaere: abadetza, garantizat jotzen dugu.
5. Bidali photoak, bai zuenak eta bai zaldiarenak, zaldiarenak bereziki.
6. Hamaika test grapholojiko eta pepsikolojiko pasa beharko ditu (zaldiak, noski).

Seinale Non zara gure seme Iñaxio Mari?
Kontraseinale Ebaren umietan ez zara ageri

Idatzi nahi duzuen tokitara, berdin da.

(BASKEMAN'S GROUP)

OHARRA. (1) "Tigre itxurakoak" ez du esan nahi "tigre usainekoak" badaezpadare diogu.

Agintariorri:

Amnistia ez bakarrik arratsaldeko bostetan

(pottia, pottia!) (tia, tia)

ANDREGAY bat behar dut
(hilko naiz bestela)

APTO: 0,005 - BI

USTELAS:

MORITURI TE SALUTAM

(Pott)



Hemen agertzen dugun grabatua berriro ere ikusi ahal izanen duzu, bera baita Thomas S. Eliot.en "LAU CUARTETTO" deitu poema liburuak eramanen duen azala. Gabriel Aresti zenak egindako itzulpen berezi batetan irakurri ahal izanen duzue Elioten lan hau, zeina jotzen den bere poetikaren ardatz bezala.

POTT editorialeak argitaratuko duen lehen liburua, hain zuzen.

